




## Abesbatzen Europako Sari Nagusia ez da Leidorren izango

**TOLOSA** ▶ Ekainerako lanak amaituko ez dituztenez, Usabalek hartuko du hitzordua; irailaren 8an egingo dute Leidor aretoaren inaugurazio ofiziala ▶ 2



Leidorreko lanak, atzo; inaugurazioa baino lehen ate irekien jardunaldiak egiteko asmoa dute. N. LATABURU



N. URBIZU

**IKER KARRERA** ▶ MENDI LASTERKARIA

«Munduko probetan onena eta politena da Aizkorri»

Aurten ez du proba egingo Euskadiko Selektzioarekin ari baita Espainiako Txapelketa eta Kopa prestatzen ▶ 5



**TOLOSALDEA**  
GOIMAILAKO L.H. INSTITUTUA

→ Lanbide Heziketako Ikerketa eta Berrikuntzarako Institutua  
→ 2001ean, Eusko Jaularitzako Zilarrezko "Q" saria  
→ 6 urtez, ISO 9002 ziurtagiriarekin

**Erdi-mailako zikloak: Euskaraz**

- Mekanizazioa
- Soldadura eta Galdaragintza
- Ekipo eta Instalazio Elektroteknikoa

**IZEN EMATEAK / AURREMATRIKULA:**  
EKAINAREN 1etik 7ra



Tfn.: 943 65 11 47 / 943 65 06 64  
Fax: 943 65 18 56  
[idezkaritza@tolosaldea.com](mailto:idezkaritza@tolosaldea.com)  
[www.tolosaldea.com](http://www.tolosaldea.com)  
Santa Luzia, 17 • 20400 TOLOSA



**TOLOSA** ▶

Hiru tolosar  
Auresku  
Txapelketan,  
Pasaian

Aritz Iglesias, Iñigo  
Iraola, Aitor Jauregi ▶ 3

**IBARRA** ▶

Sokatira  
lehia,  
Izaskungo  
jaiak hasteko

Bi asteburutan banatu  
dituzte ekitaldiak ▶ 6

**TXARAMA** ▶

Aurrera  
jarraituko du  
Araxes paper-  
fabrikak

Konkurtsu-prozeduran  
sartu da enpresa ▶ 6

HIRIGINTZA ▶

# Abesbatzen Europako Sari Nagusia ez du Leidorrek hartuko

Ekainerako lanak amaituko ez dituztenez, Usabalen egitea erabaki dute; aretoaren inaugurazioa irailaren 8an izango da



Alboetan palkoak ezarri dituzte, ikuskizunez ere bertatik gozatzeko aukera izango delarik. NOELIA LATABURU

NOELIA LATABURU

Aurreikuspenak ez dituzte bertzerik izan eta, azkenik, Leidor aretoak ez du ekainaren 17an eta 18an Tolosako jokatu den Abesbatzen Europako Sari Nagusia hartuko. Hala, abesbatzen topaketa Usabal kirolgunean egitea erabaki dute. Kultur teknikari Jokin Ansorenak atzo lanei eginiko bisitan azaldu zuenez, «gubxigatik ez da amaitzerik izan, baina oraindik ez dago prest».

Ofizialki irailaren 8an inauguratu dute, Euskadiko Orkestraren emanaldiarekin. Baina uztailaren amaierarako «lehen saioak» egin nahi dituzte eta «ate irekien jardunaldiak» antolatzeko asmoa dute, «herriarrek aretoaren txokoak gertutik ezagutu ahal izateko».



Eszenatokiaren muntaia egin dute, 5 metro gehiagorekin. N. LATABURU

Bien bitartean, eraberritze lanekin jarraitzen dute aretoan. Eszenatokiaren muntaia, esaterako, martxan dago. Sakonneran 5 metro gehitu dizkiote, eta patioa toki guztietatik «ondo ikusi ahal izango da». Laneko arduradunek adierazitakoaren arabera, «epea oso estua izan da eta lanak ondo garatu diren arren, ustekaberekin bat edo beste ere izan da». Hain zuzen, hezetan arazoak izan dira eta, beraz, ezin izan dute oraindik lurra ipini. Hala eta guztiz ere, «epe laburrean inauguratuko» dutela ziurtatu dute.

## Leidor: kultur erreferente

Aldaketa nabarmenak jasango ditu Leidor areto ezagunak; orain, inoiz baino gehiago, «kultur erreferente» izateko helburuz. Berrikuntzak xede horretan «laguntzea» nahi dute. Ansorenaren esanetan, gainera, kontzertu, antzerki eta bestelako ekitaldiekin batera, «zinemak egitarauaren ardatza izaten jarraituko du».

Halaber, ezinduentzat eta tamaina arazoa duten pertsonentzat atondu dituzte sarbidea eta hainbat eserleku. Orotara, 880 eserleku izango ditu Leidorrek eta 18 bereziak izango dira. Sarbideak ere albotara jarri dituzte, arrapala batzuekin. Eta, «erosotasuna areagotzeko», eserlekuen arteko tarreak zabaldu dituzte, 20 zentimetro gehiagorekin.

Leidor zaharrak ikus-entzuleengandik jaso izan zituen kritiken artean, temperaturarena aipatzekoa da; izan ere, «kanpoko eguraldia nolakoa, barruko temperatura halakoa». Bada, oraingoan klimatizazio sistema ezarri dute. Eszenatoki gainera igotzen zirentzat, aldiz, akustika zen arazo larriena. Hori dela eta, sabai berriak ezarri dituzte.

Aurrerantzean, sarreraren salmenten gainean «Kultur Etxean erostez ahaztu» eta Internet bidez bideratuko dituztela azaldu dute. «Azken ukituak», beraz, gutxi barru kultur gune berri bat izateko.

MUSIKA ▶

## Lizaso pianojolea eta herri musika tresnak XII. Musikarian

Gaur emango diote amaiera musika asteari, azken bi ekitaldi handiekin

N. LATABURU

Gaur amaituko da Eduardo Mokoroa Udal Musika Eskola antolatutako XII. Musikaria. Azken eguna izanagatik, makina bat ekitaldi izango dira gurean, beti ere musika protagonista delarik. Hala, 11:00etatik aurrera, Xabier Lizasok piano kontzertu pedagogikoa eskainiko du, Musika Eskolako areto nagusian. Kontzertu berezia izango da, «haurrei zuzendua izan beharrean, gurasoei zuzendua izango baita».

Kontzertuaz gain, Herri Musika Tresnen Topaketa ere antolatu dute aste musikaren harira. Iparraldetik, Bizkaitik eta Gipuzkoatik etorritako dultzainariak, albotariak, trikitilariak eta txalapartariak hartuko dute parte bertan. 10:00etan Alde Zaharretik abiatu eta zezen-plazaraino kalejira egingo dute. 11:30ean hamaiketako izango dute Laier tabernak eskainia. Ondoren, kalejirarekin jarraituko dute, 14:30ak bitartean. Orduntxe Danon Txokoa jatetxera joango baitira bazkari legea egitera.

## Aurrematrikularako deia

Bestalde, Eduardo Mokoroa Musika Eskolak datorren ikasturteko aurrematrikula egiteko epea hil honen 31n bukatuko dela jakinarazi du. Aurrematrikula hau ikaste-txan ikasle izan nahi dutentzat da. Bulego ordutegia asteleheneetik ostiralera, 10:00etatik 13:00etara da.

urteurrenak ▶



Jose Migel Leunda Otegi  
Lehenengo urteurrena

Elkarrekin beti,  
zure familia

Meza igandea 28, 12:00etan Tolosako San Frantzisko elizan

▶ hilberriak ▶ urteurrenak ▶ eskertzak

# Gipuzkoan 50.000 etxetara

HITZA guztietan prezio beragatik

**ESKELAK**  
19:00ak arte hartzen dira

Tel.: 943 65 56 95  
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.nfo

**TOLOSA ▶ DANTZA**

# Euskadiko Gipuzkoar Aurreku Txapelketa

Gaur, XXVI. edizio honetan, Aritz Iglesias, Iñigo Iraola eta Aitor Jauregi tolosar dantzariak hartuko dute parte

**ESTI EZEIZA**

Gaur, arratsaldeko zazpiretatik aurrera, Pasai Donibaneke kiroldegian, Euskadiko XXVI. Gipuzkoar Aurreku Txapelketa jokatu da. Pasaiako Udalak, Gipuzkoako Euskal Dantzarien Biltzarra eta Alkarkide Alkartasuna Dantzari Ohiak taldeak antolatuta, Gipuzkoa Donostia Kutzaren babesarekin, Euskal Herriko 16 urtetik gorako 12 gazte ariko dira taula gainean.

Parte-hartzaileek zazpi udalerririk ezberdin ordezkatuko dituzte, haietatik, sei Gipuzkoakoak eta bat Nafarroakoak. Eskualdekoei dagokionez, hiru tolosar ariko dira lehian: Aritz

Iglesias, Aitor Jauregi eta Iñigo Iraola.

Txapelketaren probak ondo-ko zatiak izango ditu: hiru dantzatuko duten *Soinu Zaharra*, *Ormatxulo*; eskua aldatzeko soinua, hemen, dantzariak banan-banan sokatik irtengo dira. Bestetik, *Kontrapasa*, dantzariak neskari, doinu ezberdinak dantzatuko dizkiolarik. Jarraian, *Aurkez aurke*, antolakuntzak ezarritako bikoteek, binaka, aurrez aurre dantzatuko dutelarik. Eta amaitezko, *Zortziko*; proba honetan, ordura arte punturik gehien lortzen duten hamar dantzariak egingo dute. Interpretazio librekoak izango da eta

**SARIAK ▶**

- Irabazlea.** Jesus Jauregi Trofeoaz gain, urrezko domina, Kutzaren trofeoa, Pasaiako Udalaren trofeoa, Txapela, Gerrikoa eta 350 euro emango zaizkio.
- 2. saria.** Zilarrezko domina, Kutzaren trofeoa eta 200 euro.
- 3. saria.** Brontzezko domina, Kutzaren trofeoa eta 150 euro.
- 4. saria.** Pasaiako Udalaren trofeoa eta 120 euro eramango ditu.
- 5. saria.** Pasaiako Udalaren trofeoa eta 110 euro.



Aritz Iglesias tolosarra. HITZA

*Zortziko* baten egitura izan behar harko du.

Irabazleak Tomas Murua Trofeoa izeneko sari handia irabaziko du. Sari hau garailean herriko udaletxean gordeko da hurrengo edizioarte. Bestetik, dantzari guztiei 40 euroko dieta oradainduko zaie.

**TOLOSA ▶**

## The Half Foot Outside eta Ya Te Digo, gaur

Gaur, 22:30etatik aurrera, The Half Foot Outside (Iruñea) eta Ya Te Digo (Bilbo) ariko dira Bonberenean. Azken lanak aurkeztuko dituzte.

**TOLOSA ▶**

## Gerontologiko berriaren aldeko manifestazioa

Gaur, 12:00etan, *Gerontologiko berria orain* lelopean Gerontologikoaren aldeko plataformak deitutako manifestazioarekin bat egin du Tolosaldeko Batasunak. «Interes partidistaz jokatzeko ari diren alderdiak salatzearekin batera, Gerontologikoaren alde dagoen eskualdeko herritar orori bertan parte hartzeko deia» egin dio.

**TOLOSA ▶**

## Euskaltzain urgazle izendatu dute Iturralde

Euskaltzaindiak 35 euskaltzain urgazle berri izendatu ditu, kultur esparru ezberdinetakoak: zientzia, hizkuntzalaritza, irakaskuntza, kazetaritza, bertsoalaritza, itzulpen-gintza, bibliotekonomia, literatura... Horien artean da Joxemari Iturralde idazle tolosarra.

**IBARRA ▶**

## Uzturpeguneko bazkarirako txartelak salgai

Astelehenerarte, Uzturpegunan festan egingo den bazkarirako txartelak salgai daude, Uzturpe Ikastolan eta Zubiaurre tabernan.

**TOLOSA ▶ IGERIKETA**

# Gaur, IV. Hegats Igeriketa Txapelketa jokatu da

Tolosaldeko IKTko bost igerilari ariko dira, Roberto Jauregiren omenezkoan

**E. EZEIZA**

Gaur, Usabalgo kiroldegian, Roberto Jauregiren oroimenezko IV. Hegats Igeriketa Txapelketa jokatu da. Tolosaldeko Igeriketa Kirol Taldeak (IKT) antolatuta, norgehiagokak bi txandatan jokatu dira, goizekoak 11:00etan hasiko dira, eta arratsaldekoak 16:00etan.

Txapelketan 12 eta 15 urte bitarteko igerilariak hartuko

dute parte. Hegats igeriketa talde hauk lehiatuko dira Usabalen: Euskal Autonomi Erkidegoa, Katalunia, Nafarroa, Valentzia eta Andaluzia.

Tolosaldeko IKTko neska-mutilen artean, bost igerilari aukeratuak izan dira Euskadiko Selektzioan igeri egiteko, eta hauek hartuko dute parte. Horietako lau dira neskek, eta mutil bat: Mara Varela, Nere karre-rra, Irati Larrañaga, Ainitze, eta Jon Molinero, hain zuzen ere.



Roberto Jauregi hegats igerilari ohianen argazki bat. HITZA

Txapelketa honekin, antolatzailerik «Roberto Jauregiren lanak aurrera jarritzen duela»

erakutsi nahi dute, aurten egingo baitira 25 urte Tolosan hegats igeriketa egiten hasi zela.

**TOLOSALDEKO HITZA.INFO**

**Eztabaida.** «HITZA argitaratzen duen Tolosa Herria Hedabideak enpresak 2006ko kobraketa kanpainari ekin dio aldaketa batekin: ordaintzen ez duenak irailaren 1etik aurrera ez du etxean jasoko egunkaria. Zer deritzozu?». Sartu gure web orrian, eta eman zure iritzia. Animatu!

**ARAMBURU**  
**Alokatzeko.** Pisuak. Anoeta, Alegia, Amezketa eta Lasarten.  
**Salgai (Tolosa).**  
 Pisuak Belate kalean. 75 m2.  
**Salgai (Tolosa).**  
 Pisuak San Frantzisko, 17. 140 m2. Garajea aukeran.  
**Salgai (Tolosa).**  
 Pisuak Laskorain kalean. 5.-a.  
**Salgai (Tolosa).**  
 Pisuak Laramendi kalean. 112 m2.  
**Salgai (Garajeak).**  
 Tolosako Leidorren eta Ibarra  
 943 65 17 13 / 677 46 09 16

**Mahala**  
 BASERRIKO PRODUKTU NATURALAK

**Jogurta**

Mahala baserria - 20491 LEABURU  
 Tel.-Faxa: 943 673 499  
 Tel. Mug.: 689 805 633

## Andoain administrazio lanak egiten dituen enpresa batek telefono bidezko kobraketa kanpaina bat egiteko langile bat behar du

**Eskatzen da:**

- Telefono bidez eginiko lanetan (kobroak, salmenta, bezero arreta...) eskarmentua izatea.
- Erabiltzaile mailako informatika ezagutza.
- Kontabilitate ezagutza izatea baloratuko da.
- Lehenbaitlehen lanean hasteko aukera izatea.

**Eskaintzen da:**

- Asteleheneratik ostiralera 6 orduko lanaldia, 15:00etatik 21:00etara.
- 2 hilabeteko lana, emandako errendimenduaren arabera luzatu daitekeena.

**Interesatuak 10:00etatik 13:00etara deitu 943 30 43 35 telefonora maiatzaren 30a baino lehen.**

KOBRAKETA KANPAINA ▶

## HITZako harpidedunen artean bidaia zoragarri bat eta afari bat zozketatuko dira ekainaren amaieran

Harpidedunak kupoi bat bete eta egunkariko egoitzetara eraman edo bidali beharko du

ERREDAKZIOA

2006ko kobraketa kanpaina abiarazi du TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK. Harpidedunek, hau da, urteko kuota or-

daintzen dutenek, zozketa berezi batean parte hartuko dute. Tolosako Lautrek bidaia agentziak eskainitako bi pertsonentzako bidaia zoragarri bat eta Tolosako Zumeta jatetxean bi

lagunentzako afaria zozketatuko dira. Datorren lau astetan HITZAN agertuko den kupoa bete behar du harpidedunak bere datuekin, eta Tolosako edo Leitzako egoitzetara era-

man edo bidali. Zozketa ekai-man amaieran egingo da.

HITZak eskaintzen duen zerbitzuaren kostuak guztien ekarpena beharrezkoa du. Era-kunde publikoen laguntzak be-

randu iritsi dira eta ez dira behar adinakoak izan proiektuaren dimentsioa kontuan hartuta. Horrela, HITZA ordaintzen dutenei zerbitzu osoa eskaini nahi zaie. Horregatik, kanpaina amaitu ondoren, ordaintzen ez duenari ez zaio egunkaria etxera banatuko. Harpidedunak txartel berria jasoko du eta abantaila berriak izango ditu, besteak beste, beherapenak zorian agur, eskela eta iragarki laburretan.

ZIZURKIL ▶ MAIATZA SALTSAN

## Atxulondo ezagutzeko aukera

Ibilaldiak egingo dituzte ingurura, bihar



Atxulondoko presa ikusi ahal izango dute ibilbariek. JOXIN AZKUE

ERREDAKZIOA

Atxulondora irteera antolatuta dute biharko, Maiatza Saltsan egitarauaren baitan. Gutxi bisitatzen den herriko ingurune hori ezagutzeko aukera izango dute ibilaldian parte hartzen dutenek.

Bi ibilbide antolatu dira. Luzea, 18 kilometrokoa, Pedro Mari Otaño plazatik aterako da, 08:30ean. Ibilaldi motza, 6 kilo-

metrotakoa. Itzumitzen elkartuko da bestearekin, 10:00etan. Mapa banatuko dira ibiltarientzat eta Atxulondoko burdinolari buruzko erreferentziak emango dira.

Bazkaria Motzanen egingo da eta eguraldi txarra egiten badu, berriz, Zaraten egingo dute. Bakoitzak bere janaria eman beharko du eta edaria antolakuntzakoek banatuko dute.

AHT ▶

## AHTren aurka arrazoiak biltzeko mahaia

Aiztondon hiru herritan jarriko dituzte; Zizurkilen, gaur, 12:30ean

ERREDAKZIOA

AHT Gelditu Elkarlanak AHT gelditzeko mila arrazoi dauka: eman zurea! kanpaina abian dauka AHTren kontra sinadurak, arrazoiak eta konpromisoak biltzeko. Bertan, jendeak AHTren kontra egoteko zer arrazoi duen azalduko du, eta nahi izanez gero konpromisoren bat hartuko du AHTren aurka egiteko eta sinadura emango du.

Sinadurak, arrazoiak eta konpromisoak biltzeko herriz herri ibiliko dira kanpainako antolatzaileak. Aiztondo bailaran hiru herritan jarriko dituzte horretarako mahaia, ondorengo egunetan: Zizurkilen, gaur, 12:30etan, Zubimuxu ondoan; Asteasun, ekainaren 3an, 12:30etan, plazan; eta Aduan, ekainaren 4an, 17:00etan, plazan.

ANOETA ▶

## Gaztetxeko urteurrenaren azken ekitaldiak

Anoetako Gaztetxea bere zazpigarren urteurrena ospatzen ari da. Gaur amaituko dituzte ekitaldiak. 12:00etan entsalada eta tortilla txapelketa egingo dute eta, ondoren, bazkaria. Gero jokoak egingo dituzte, eta 19:00etan gazte-triki poteoa. 20:30ak aldera afaria egingo dute Gaztetxean eta, 22:00etan, Gazte Asanbladakoek prestatutako antzerkia. Bukatze-ko, kontzertua eta txirrisklas.

ANOETA ▶

## Udalak herri dantzen ikastaroa antolatu du

Udalak San Joan zortzikoa, arin-arin eta fandango ikastaroa antolatu du haur (LH2tik aurrera), gazte eta helduentzako. Ekainaren 5etik 8ra eta 19tik 22ra egingo dira, egunero ordubetez eta arratsaldez. Bilerak egingo da ordutegiak zehazteko. Zortzi euroko kostua du eta ohiko murrizpenak egingo dira. Izena emateko udaletxera joan behar da ekainaren 1a baino lehen.

VILLABONA-ZIZURKIL ▶ HEZKUNTZA



Ikastolaren bultzatzaileak, atzo, omenaldia jasotzen. I. GARCIA

## Hastapeneko garaietakoei omenaldia

Jesusen Bihotza Ikastolak atzo hasi zituen 40. urteurrenako ospakizunak. Lehenengo ekitaldia hasierako garaietan lanean ari-tutako guraso, irakasle eta zuzendariari omenaldia egitea izan zen. Ondoren, afaltzera bildu ziren Aburuza sagardotegian.

**Tolosaldeko Telefono Listin berria** egiten ari gara. Komertzio bat badezu, laister **TU Komunikacion**-eko bisita bat edukiko duzu. Hau da gure laziko portada, ez nahastu!

Hala ere, bertan publizitatea egin nahi badezu, **943214141/439200887/4392008987** deitu dezakezu.

**Bridge** **UDAKO IKASTAROAK UZTAILA 2006**

Haur, gazte eta helduentzat

**FRANTSESA & INGELESA**

**FIRST eta ADVANCED**

**azterketak prestatzeko ikastaro trinkoak**

Talde txikietan • Orduetgia taldeen arabera

Pablo Gorosabel 2 - 1A • 20400 Tolosa  
943 65 00 70 • 680 222 526  
www.bridge2005.com • bridge2005@bridge2005.com

KIROLA ▶

## Areto futboleko Tinta eta Laskorain 'play-off'-ean

Areto gutboleko Nesken Txapelketako play-off partidak jokatuko dituzte gaur Villabona-ko Tinta eta Tolosako Laskorain taldeek, beste lau talderekin batera. Zestoan izango da, eta norgehiagokak 09:30ean hasiko dira.



IKER KARRERA ▶ MENDI LASTERKARIA

# «Aizkorri munduko proben barruan onena eta politena da»

Korrikalariak ez du Aizkorriko Munduko proba egingo, Euskadiko selekzioak, aurten, Espainiako Txapelketa eta Kopa presta ditzan erabaki duelako

NEREA URBIZU

31 urteko mendigoizalea da Iker Karrera. Zizurkilan bizi bada ere amezketarra da berez. Euskal Herriko selekzioan dago, mendi lasterkarien selekzioan, hain zuzen ere.

**Aizkorriko proba egin behar al duzu?**

Ez, hori Munduko Kopan dabilenari dagokio: nik Espainiako Kopa eta Txapelketa prestatu behar ditut, eta Espainiako bigarren proba hemendik bi astetara daukat, ekainaren 11n, Alacanten (Herrialde Katalanak). Denbora gutxi da, tar- te gehiago behar da.

**Baina noizbait egin izan duzu...**

Bai, lehengo urtean egin nuen eta 10. geratu nintzen, 2. euskalduna. Neure kasa prestatu nintzen, eta emaitza ona lortu nuen.

**Aizkorriko proba nolako da?**

Munduko Kopako probetako bat da, mundu mailan dago. 7 proba inguru egiten dira. Benetako maratoia da; hau da: 42 kilometro eta 196 metrokoa, hain zuzen. Denetan politena da, paisai aldetik eta proba aldetik. Antolakuntza aldetik ere oso ondo dago, lan handia dago atzean. Lehian egoten dira herri asko, proba hau egiteko, maratoia egiteko aukera ematen duten mendiak asko baitira. Aizkorri azken urtean egitea tokatu da, baina ez du beti horrela izan beharrik.

**Nola etorri zen selekzioarekin aritzeko aukera?**

Nik ez dakit zein irizpide hartzen dituzten kontuan, baina pentsatzen dut denborak kontuan hartzen dituztela, eta pausoak jarraitzen dituztela. Ni mendiko kirolean duela ez asko hasi nintzen, baina lehengo errepedean egiten nuen korrika... Beraz, ez da bat-bateko gauza izan. Deitu egin zidaten lehengo urtean, aurten ibiltzeko, eta hor nabili.

**Zeintzuk dira selekzioarekin daukazun abantailak?**

Prestatzaile bereziak daukazu, antolakuntza bat dago, mediku zerbitzua, masaje zerbitzua... Hobeto prestatzeko aukera, azken finean. Bakarka zaila den lasterketetan parte hartu dezakezu, gastuei aurre egiten baitie selekzioak. Orain



N. URBIZU

## ORAINGO ASMOAK

«Orain Espainiako Txapelketa eta Kopa prestatzen ari naiz, ekainaren 11n daukat 2. proba, Alacanten»

## AIZKORRI

«Maratoi serioa da, distantzia errespetatzen du, eta antolakuntza aldetik oso ondo dago, lan handia atzean»

## LEHIAKORTASUNA

«Beti egon da lehia, are gehiago Euskal Herrian, apustu mordoarekin, baina oraingoak antolatuko dira»

12 gaude bertan: azken urte honetan taldea handitu egin da, eta gustura nago.

**Zer prestatzen ari zara orain?**

Espainiako Kopa eta Espainiako Txapelketa. Espainiako txapelketa lasterketa bakarra da, Alacanten egingo dena. Saria banaka eta taldekoa ere banatzen dute bertan. Espainiako Kopan, lau lasterketa daude. Bat egin nuen Castellonen, eta bosgarren egin nuen. Hurrengo Alacanten izango da. Uztailan Vergan (Catalunya), irailean Palentzian (Espainia) eta urrian Sabiñanigon (Espainia), 38 kilometroko lasterketa. Puntuak lortuz joaten zara. Puntuaren arabera irabazlea zara, edo ez.

**Zein dira kirol honetan dau- den arriskuak?**

Oraindik ez da gauza serio- rik

gertatu, baina arriskuak hor daude: ez zaude errepede arunt batean, mendian zabil- tza: anbulantziak, helikoptero- ak, anoa gunearak, bai lehenen- goentzat eta bai azkenekoaren- tzat ere, asistentzia... Erortzea erraza izaten da. Ziurtasuna behar da: norbaitek min har- tzen baldin badu erantzuna be- rehalakoa izateko. Zoruak as- kotan harkaitzak ditu, eta har- daitekeen mina kontuan har- tzekoa da, serioa izan daiteke.

**Elikadura asko zaintzen al duzu?**

Bai, noski: oinarria da. Pasta eta arroz pila bat jan behar da, fruta, barazkiak, haragia ere, baina ez proteina gehiegi. Korrika egin behar denean, azkar digeritzen den elikadura era- man behar da: platanu pixka bat, barratxoren bat... Edarrian

artean energetikoak dira one- nak.

**Ez duzu uste mendizale- tasu- na galtzen ari dela?**

Ez dut uste: desberdina da le- henagokoa edo oraingo, bes- terik gabe. Beti egon da lehiatu den jendea, historian zehar. Gure herrian ere apustu modu- ko asko egon dira beti... Orain- goak masiboagoak dira, eta antolatuagoak, lehiaketa gehiago dago, gauza horiek egiteko denbora gehiago... Ga- rriak aldatu egin dira, lehia- kortasuna asko elikatzen zaigu eta dugu. Mendira joateko go- goak boladaka dator askotan. Ni, adibidez, beste modu bate- ra joaten naiz mendira denbo- raldia bukatzen denean, modu lasaia go batean.

**Aholkuren bat Aizkorri egin behar dutenentzat?**

Hasteko, federatuta egotea, bertan ez bazauda, eta nahiz eta irabazi, saria ez baitizute ematen. Horrez gain, proban indarrak neurtu egin behar dira: Aizkorriko tontorra fresko igotzea da onena, presa handi- rik gabe, ondoren gogorra datorrelako. Azken jaitziera 11 kilometrotakoa da, baina ez da erraza, ez da gorputza baka- rrik joaten den horietakoa. Tra- mo horretan normalean ira- bazlea zein izango den eraba- kitzen da.

**Noizko Txindokiko maratoia?**

Ba lekua aproposa da, espazio- arengatik, polita delako, eta be- har den distantzia ere baduela- ko. Baina arazoa antolakuntza aldetik behar den jende kopu- ru izugarria da.

**Txindoki ala Aizkorri?**

Txindoki, zalantzarik gabe. Ni Txindokipeko baserri batean jaio nintzen, eta etxetik atera eta pare-parean nuen. Gustu- koena dut, mendi bezala. Aiz- korri ere polita da, baina auke- ran, Txindoki nahiago.



## TOLOSAKO INMAKULADA IKASTETXEA

### ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Erizaintzaren Laguntza.
- Farmazia.

### GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Diagnosi Trudiak.
- Osasun Dokumentazioa.
- Gizarte Integrazioa.

### AURREMATRIKULA: MAIATZA

Kondeko Aldapa, 5-B 20400 TOLOSA  
Tel.: 943-673629 [www.inmakuladatolosa.com](http://www.inmakuladatolosa.com)

## IBARRA ▶ GIZARTEA

## IÑIGO TERRADILLOS

Bihar ekingo diete Izaskun auzoko jaiak, eta ekainaren 5a bitarte, bi asteburuetan banatuta, hainbat ekitaldi izango dira. Sokatira lehia interesgarri batekin festa bihar hasiko bada ere, datorren larunbatean, ekainaren 5ean, izango da jaien berezko hasiera. Herri kirol probak izango dira nagusi egitarauan, eta horietan aipatzeko da Unai Otaño ibartarrak eta Jesus Mari Lasa legorretarrak osaturiko bikotearen eta Jose Mari Olsagastiren arteko aizkora apustua; izan ere, errebantxa jokatu dute, bikoteak garaitu baitzuen igelodarra Tolosako zezen-plazan apirillean eginiko lehendabiziko apustuan.

## BIHAR

17:00. Sokatira lehia: Izaskun-darrak, Urnieta, Oiarzun eta Astigarraga.

## EKAINAK 3 (LARUNBATA)

17:00. Herri Kirolak. Aizkora errebantxa: Olsagasti, Otaño eta Lasa bikotearen aurka. Harria jasotzen Aimar Irigoien eta Joseba Ostolaza ariko dira, eta ondoren, ahari jokoa izango da. Toka txapelketa ere egingo dute. Izena emateko 5 euro ordaindu beharko dira.  
21:00. Bertso-afaria Izaskun Jatexean Amets Arzallus eta Angel Mari Peñagarikano bertsoari. Txartelak salgai daude ohiko lekuetan.

# Bihar hasiko dira Izaskun auzoko jaiak

Bi asteburuetan banaturiko egitaraua izango da; bertso eta dantza saioak eta herri kirolak izango dira, besteak beste



Sokatira lehiak emango die hasiera aurtengo jaiak. Irudian, ibartarren saio bat Izaskunen. HITZA

## EKAINAK 4 (IGANDEA)

12:00. Herri Kirolak: Izaskun Urnieta aurka.  
14:30. Herri bazkaria Peñak eta Irazuk alaituta.  
17:30. Etxabe Anaiak.  
18:30. Auzoko helduen eta gazteen arteko sokatira lehia.  
Ondoren. Txerrikume harra-

paketa, eta auzokoen arteko korrika-apustua.  
20:00. Etxabe Anaiak Trikitilarien bigarren saioa.

## EKAINAK 5 (ASTELEHENA)

10:00. Diana trikitilariekin.  
11:00. Meza Nagusia.  
12:00. Hamaiketako herrikoia.

13:00. Bertso saioa Mendiluzerekin eta Lizasorekin.  
17:00. Alurr dantza taldearen emanaldia; ondoren, goxokiak banatuko dituzte.  
18:30. Bertso saioa Mendiluzerekin eta Lizasorekin.  
19:00etatik 20:30era. Erromeria eta jaien amaiera.

## TXARAMA ▶ EKONOMIA

## Konkurtsu-prozeduran, aurrera jarraituko du Araxes paper-fabrikak

Zuzendaritzak itxeko asmoa azaldu zuen arren, orain aurkakoa dio

## I. TERRADILLOS

«Hasieran itxeko asmo garbia azaldu bazuten ere», zuzendaritzak ez duela Araxes paper-fabrika itxi nahi eta konkurtsu-prozeduran jarraituko duela adierazi du. «Lehengai guztia

saldu, lortutakoa langileen artean banatu eta likidatzeko asmoa azaldu zuten, baina ados ez ginelarik ikusi dutenean, konkurtsu-prozeduran sartu dira», azaldu du LABek.

Enpresak pilatu dituen zorrak kitatzeko bidean jarriko dira modu horretan, hau da, hartzekodunei ordaintzeari utziko diote, eta negoziazio bidean jarriko dira. Bi aukera egongo lirarteke negoziazio prozesu horretan: hartzekodunek zorraren zati bat gutxienegaz jositzeko zorra gutxitzea onartu dezakete edo, bestela, era horretako akordioetara iristen ez badira, zorraren lehentasunaren arabera kitatzen joango lirarteke ondasunetatik. Bitarte

horretan, administratzaile judizialaren esku egongo dira enpresak egiten dituen mugimendu garrantzitsuak.

## Langileak elkartuta

Paper-fabrikako 34 langileentzat kolpe handia izan da enpresaren egoeraz jabetzea, eta zuzendaritzak hartutako erabakia jakitea. Egoera honen aurrean, guztiak elkartu egin dira euren eskubideak defendatzeko, eta zuzendaritzari enpresa ez ixtea exijitzeko. Bitartean ez diote lanari utzi, eta egunero joan dira paper-fabrikara, produkzioa etenik dagoen elako lan osoa egiterik izan ez badute ere.

## LEABURU ▶

## Gerontologiko berriaren alde, herritarrei deia egin die Udalak

Manifestaziorako deialdia luzatu du, «arazoa Tolosaldekoa baita, ez Tolosakoa»

## I. TERRADILLOS

Gerontogiko berri baten alde Gerontologikoaren aldeko plataformak gaur deitu duen manifestazioarekin bat egin du Leaburu-Txaramako Udalak. Izan ere, «arazoa ez da soilik Tolosakoa, Tolosaldeko guztiongan du eragina, eta horregatik plataformak eginko deialdia bultzatzen dugu, eta herritar guztiak deitzen ditugu bertan parte hartzera».

## IBARRA ▶

## Langostino Moto elkarteak bira egingo du bihar

Langostino Moto elkarteak bira antolatu du bihar. Hasiera batean 100 kilometro inguruko bira egitea pentsatu bazuten ere, azkenean 160 kilometrokoa egingo dute. Hauek izango dira Ibarrik aterata igaroko dituzten puntu nagusiak: Tolosa, Alegia, Ordizia, Oztaurte, San Roman (hamaiketakoa), Uribarri-Ganboa, Lizarrusti, Beasain eta Ibarra.

## IBARRA ▶

## Euskadiko Txapelketan ariko da Belabieta

Gipuzkoako B mailako enbaterako Txapelketan, Belabieta gimnastika erritmikoko Maider Urruzola 5. geratu zen. Bestalde, bihar Euskadiko Txapelketa izango da, Tolosako Usabal kiroldegian, eta Belabietako Garazi Eigurenek hartuko du parte.

## TELEFONOAK ▶

### Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

- ▶ Alegialdea. Osasun z.: 653212
- ▶ Anoeta-Alkiza-Herialdea. Medikua: 65 23 39
- ▶ Baliarrain. Medikua: 889003
- ▶ Berastegi-Elduain. Medikua: 683361
- ▶ Bidegoian. Medikua: 681134
- ▶ Ibarraldea. Osasun ebea: 672411
- ▶ Ikaztegieta. Medikua: 653329
- ▶ Irura. Osasun zentroa: 690720
- ▶ Leitza. Osasun z.: 948 510800
- ▶ Orendain. Medikua: 655595
- ▶ Oresa. Medikua: 682228
- ▶ Tolosa.

- ▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111
- ▶ San Esteban: 006800
- ▶ Gernikako arbola: 006900
- ▶ Amaroako dispen.: 672637
- ▶ Asunzion klinika 675799 -

- 67 53 90 (larrialdiak)
- ▶ DYA: 672536
- ▶ Gurutze Gorria: 674888
- ▶ Villabona. Anbulat.: 006970
- ▶ Zizurkil. Aiztondo zerb: 693930

## Garrarioak.

- ▶ Renfe: 902 24 02 02
- ▶ Donostiako autobusa: 361740
- ▶ Tolosaldea bus: 650621
- ▶ Leitzaran autob.: 948 221015
- ▶ Taxia: 670420
- ▶ Taxia (Leitza): 608 873016

## Besterik.

- ▶ Ertzaintza: 538820
- ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675885
- ▶ Tolargi: 650016
- ▶ Iurramendi egoitza: 670325
- ▶ Tolosa gasa: 675320

## iragarki laburrak ▶

## SALGAI

**Furgoneta.** Vito CDI 110. 2002. urtekoa. Kanpinerako prestatua. Interesatuek deitu 685 72 50 53 zenbakira.  
**Autoa.** Renault. Kangoo RXE DTI. 2000koa. 88.000 kilometro. Estrak. 943 69 71 94.

LEITZA ▶ XXVIII. KULTUR ASTEA

# Biharko eskulangileen erakusketaren zain jai giroa nagusituko da

Bideo emanaldi eta hitzaldien ondoren, herri afaria egingen dute Karrapean, musika mota desberdinak tarteko direla

JAIONE ASTIBIA

Indartsu bukatuko dute Kultur Astea Leitza, gaur-biharretarako prestatuta dituzten ekitaldiei esker: gaurko herri afariaren inguruko jai giroa eta, azken urtetan bezala, Kultur Asteko plater garrantzitsua den Leitzako XXVI. Eskulangintza Erakusketaren egina baitute bihar.

Gaur, 18:00etan, Ateka Beltzan egingen dute aurreneko saioa, *Gerra egosten den tokia* bideoaren proiektioarekin, eta ondoren KEMeko kideek tiro-polygonoari buruz eskainiko duten hitzaldiarekin. Iluntzetik aurrera, festa giroa jabetuko da: Batugara perkusio taldearekin egindako kalejirarekin lehenik, Karrapean egingen duten herri afariarekin eta ondoren, hor bertan, Txaralde eta Khaus taldeak zuzenean eskai-



Atzoko arratsaldeko zirkotailerrean, nahikoa jostatu eta gozatu zuten Leitzako eta Aresoko eskoletako ikasleek. JAIONE ASTIBIA

niko duten kontzertuarekin. Gaugiro epela espero dute antolatzaileek eta horrek giroari lagundu besterik ez dio egingen.

Biharko ere beste hainbeste. 11:00etatik aurrera, Euskal Herri osotik etorritako 32 artistak beren lanak erakusgai ja-

rriko dituzte herriko plazan eta egun gutian zehar. Harria, zura, burnia, oihalak, larrua, beira... material mota guztiarekin egindako lanak ikusteko aukera izateaz gain, taloak ere salgai egonen dira bertan. Asteburu hormitua, beraz, ailegatu berria den hau.

NAFARROAKO TXIRRINDULARI ITZULIA ▶



Iñigo Sagastibeltza leitzarra, herrigunetik igarotzerakoan. J. ASTIBIA

## Herritarren txaloak jaso eta karrerarekin aurrera

Nafarroako Txirrindulari Itzuliko 4. etapa  
Leitza erditik igaroz Donezteben bukatu da

J. ASTIBIA

Atzo arratsaldean, bostak hoge gutxi inguruan igaro zen Nafarroako Txirrindulari Itzuliko 105eko tropela Leitzako erdigunetik. Tartean ziren Mikel Nieve eta Iñigo Sagastibeltza leitzarrak, buruari jarraian heldu ziren taldeketan.

Taldea zatikatuta eta abia-bizian jaitsi zen Uitziko mendatea behera, herrian jarrita zegoen tarteko helmuga-

rantz; handik gora Kaxetako mendateari ekin zioten. Atzo, Donezteben bukatzeko zuten etapa.

Sailkapen orokorrean, Tendaro zegoen buruan, ordurarte egindako 3 etapetako denbora 10 ordu, 3 minutu eta 47 segundokoa izanik. Etzekoei dagokienez, berriz, Nieve 63. zegoen, 8 minutu eta 39 segundora eta Sagastibeltza, 91., 22 minutu eta 12 segundora.

LEITZA ▶ FUTBOLA

## Gaur bertan ekinen dio Aurrera futbol taldeak igoera faseko partiduak jokatzeari, Beriainen aurka eta han

Joan-etorriko bi partidu jokatu dituzte, 3. saileko talde honekin; emaitza onenarekin, igoera

J. ASTIBIA

Heldu den astean jokatu ote zuten ustean, federaziotik Aurrerari jakinarazi diotenez, gaur bertan hasiko dira Nafarroako Lurraldeko Lehenengo mailako igoera faseko partiduak jokatzeko. Hala, Aurrerari, 4. sailekoa izanik eta Ligako azpitxapeladun, 3. saileko 3. sail-

katuarekin jokatzeko egokitu zaio, hots, Beriainen taldearekin: gaur, 17:30ean, Beriaingo zelaietan dute hitzordua leitzarrek.

Hitzordu garrantzitsua ez bairik gabe, izan ere, bi partidutara jokatu dute guztia (itzulerakoa etxean, noski), eta puntuak ez ezik emaitza ahalik eta onena eskuratzea da igoeraziazko biderik egokien-

na: sailkapena edo kanporaketa, partiduetan sartutako golen ariorakoa ere izanzen baita, kanpoan sartutako golak baliotsuagoak izanzen direlarik, gainera.

4. eta 3. saileko lau aurreneko taldeek gurutzatzen jokatuko dute fase hau. Iruñetik iparralderantzko taldeak dira guztiak; modu berean, 1. eta 2.

sailekoek euren artean, hauek herrialdeko hegoaldekoak. Bakoitzetik talde bat igoko da Gorenge mailara.

Jakin Aurrera taldeak zale-tuentzat autobusa antolatu duela gaur Beriainera joateko, doan. 15:30ean aterako dira herrigunetik. «Etorri nahi duenak azaltzea besterik ez du», zioten antolatzaileek.

LEITZA ▶

## Plazako Pilota Txapelketako bigarren saioa gaur

ERREDAKZIOA

Plazako Txapelketan hauek ariko dira gaur: Zubillagatarrak/Anduezatarrak; Lazkano-Alduntzin/Aldaia-Olano; Makatzagatarrak/Alduntzin-Sagastibeltza; Telletxea-Zabaleta/Lazkano-Buldain; Tximista-Bordazpi/ Zeballos-Iriarte; Bengoetxea-Gartzia/Sagastibeltza-Arburua.

iragarki laburrak ▶

## LANPOSTUAK

**Gidariak.** Udaletan eta Eusko Jaurilarizan laster lanpostuak B1, BTP eta C1. 943 31 37 82.

**Garbitzaileak.** Lanpostu libreak:

Eusko Jaurilaritza, ikastetxeak, ospitaleak. Informazioa 943 31 37 82.

**Mantenimendu Ofiziala.** Ospital, egoitza eta udaltxerako. Informazioa doan. 943 31 37 82.

**Gipuzkoako Foru Aldundiak** behar ditu: sukaldari laguntzaileak, obra zaintzaileak, gidariak, zaintzaileak, basozainak, laborategi teknikariak,

garbitzaileak. 943 31 37 82.

**Osakidetzak.** Lanpostu libreak. Teknikariak, alborategi laguntzaileak, erizain laguntzaileak, zeladoreak. Informazioa doan. 943 31 37 82.

**Langileak.** Igeltseroak, elektrizistak, iturginak, lorezainak, palistak,

gidariak. Udaletxerako lanpostu libreak. Informazioa doan. 943 31 37 82.

**Administrari laguntzaileak.** Beasain, Bergara, Soralue, Mutriku, Zizurkil, Mendaro eta Anoetako udalek administrari laguntzaile

lanpostuak bete behar dituzte. Informazioa doan. 943 31 37 82.

**Aireportuak.** Lanpostuak betetzeko: bezeroari arreta, aireko kontrolatzaileak, suhiltzaileak, mantentze-lanak. Informazioa doan. 943 31 37 82.



**AGENDA ▶**

**DEIALDIAK**

**Alegia.** 11:30ean, ginkana; 21:00etan, plazan, afaria. Kirol Astearen barruan.  
**Leitza.** 18:00etan, *Gerra egosten den tokia* bideoa Ateka Beltzen; 20:00etan, Batugara perkusio taldea; 21:30ean, herri afaria; 00:00etan, kontzertua. Kultur Astean.  
**Tolosa.** *Gerontologiko berria orain* manifestazioa. 12:00etan, Triangulotik.

**JAIKAK**

**Ibarra.** San Inazio auzoa: 10:00etan, haur jaialdia; 11:00etan, toka eta xakea; 12:00etan, tortilla lehiaketa eta pintxo dastaketa; 18:00etan, meza; 18:30ean, txaranga; 19:00etan, sokatira; 22:00etan, Tukan taldea.

**MUSIKA**

**Tolosa.** Herri Musika Tresnen Topaketa, Musikarion: 10:00etan, kalejira; 11:30ean, hamaiketako; 12:00etan, kalejira; 14:30ean, bazkaria.

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Gaur**  
**Leitza.** Larraia M. I. Elbarren 95. 112.  
**Tolosa.** Bronte, C. Korreo kalea, 20. 943 67 60 13.

**IRRATIA**

**Txolarre irrati**  
**(107.5, 101.2 FM)**  
10:30-13:00. *Hitza* hegazti magazinaz: kolaboratzaileak, Munduari leihoa...

**Goiko irrati** (107.0 FM)  
13:00. *Komerra* magazinaz. Posta elektronikoa: komerra@hotmail.com.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanetan eta iritzien erantzukizunik.

# Asteasu, berriro

**TOLOSALDEA ▶ Asteasu iazko txapeldunak Herrien Arteko III. Euskal Jokoen Topaketako Gipuzkoako kanporaketa irabazi du; Zizurkil eta Ibarra ere aritu dira**

**ERREDAKZIOA**

Iazko txapeldunak argi utzi nahi izan zuen berriro aurtengo lehia irabazteko hautagai nagusia dela. Asteasuk irabazi zuen, igandean, Xibak antolatutako Herrien Arteko III. Euskal Jokoen Topaketako Gipuzkoako kanporaketa. Oiar-tzunen. 778 puntu batuta, bi puntuko alde atera zion hurrengo sailkatuari, Idiazabal.

Baina asteasuarrak ez ziren eskualdeko ordezkari bakarrak izan. Zizurkilek eta Ibarrrak ere beraiein ahalak era-kutsi zuten: zizurkildarrak sei-garren sailkatu ziren (757 puntu), eta ibarrak zazpigarren postuan (743).

Idiazabal, Hernani, Katatxulo Gaztetxia eta Igeldo izan ziren gainontzeko taldeak. Denera, 85 bat neska-mutil aritu ziren nor baino nor. Zaldibia eta Egia falta ziren, eta bihar Elorrioren ariko dira. Ibilaldian egingo den Bizkaiko Topaketaren barnean, baina puntuaketa gipuzkoarren artean kontutan hartuko dituzte.



Ibarra bi taldekide, fin, trontzan; denera, 85 neska-mutiek jardun zuten lanean. HITZA

**SAILKAPENA ▶**

1. Asteasu. 778 puntu.
2. Idiazabal. 776.
3. Hernani. 760.
4. Katatxulo Gaztetxia. 757.
5. Igeldo. 757.
6. Zizurkil. 757.
7. Ibarra. 743.



Sokatira izan zen beste probetako bat. HITZA

**AGURRAK ▶**



**URTE ASKOAN**

Nahia eta Suhar Beldarrain Aieriza (Tolosa).

Gaur bi urte.

Zorionak familiaren partetik.

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

**hitza**  
agurren tartea

**TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA**

2006 Harpidetza kobraketa kanpaina

**ILARAK, FAKTURAK, KOMISIOAK... AHAZTU!**

**HELBIDERATU ZURE KUOTA**

**EROSAGOA eta 2 ZATITAN ORDAINTEKO AUKERA**

**egunean 0,18 zentimoren truke buzoian**

